

ETORKIZUNA GURE ESKU

Agenda 2030 2015eko irailaren 25ean onartua izan zen. Orduz gero, Jakintza Ikastola proiektu horren aldeko apustua egin du, erronka horiei aurre egiteko asmoz. Egitasmo honek 17 helburu ditu, esaterako, natura zaintzea, pobrezia desagertzea, osasuna eta ongizatea bermatzea... Nahiz eta zailtasun handiak izan, helburu batzuk lortu dira, besteak beste, haurren heriotza-tasa murriztea, energia berriztagarria eskuratzea, azpiegitura digitalak hobetzea... Ikastetxeak ahal duen ahalegin guztia egingo du helburu horiek lortzeko. Zergatik da Agenda 2030 hain garrantzitsua gure etorkizunerako. Zer egin genezake?

XEDEAREN GARRANTZIA

Ekimen hau bere garaian 17 helbururekin sortu zen, munduan zehar agertzen ziren hainbat arazo eta erronkei irtenbidea emateko asmoz. Gainera, helburu guztiak landu ahal izateko, helburuak bi urtez behin aldatu egiten dira. Horrekin batera, momentu honetan 12. egitasmoan lanean dihardutela adierazi du Nagore Zazpek, Agenda 2030eko koordinatzaileak. Bestalde, honen aurretik Agenda 2021 proiektua egon zen martxan, eta helburua 2021erako ezarritako xede guztiak betetzea zen. Hala ere, guztiak lortu ez zirenez, ekimen berri honi eman zitzaion hasiera.

KOOPERAZIOA

Jakintza Ikastolako koordinatzailea hilabetero udaletxekoekin elkartzen da, eta bertan mintzatuz ekimen hau aurrera eramaten saiatzen dira, arau zein ekintza baliagarri eta interesgarriak antolatuz.

Udaletxe eta ikastolen harremana ona izatea oso garrantzitsua da.

Udaletxe eta ikastolen harremana ona izatea oso garrantzitsua da.

Harremana oso sendoa dutela nabarmendu du Zazpek; horregatik, proiektua aurrera eramateko koordinazio handia dagoela azpimarratu du. Gainera, ikastolak apustu sendoa egiten du Agenda 2030aren alde.

PROZESUA

Agenda 2030eko proiektuak bi urteko iraupena izaten dute. Lehenengo urtean diagnostikoa egiten da, hau da, arazoa zein den aztertzen da. Bigarren urtean, aldiz, esku hartzea izaten da egin beharra, eta bertan aurreko urtean planifikatutako hala ekintzak nola helburuak betetzen dira. Horrez gain, aurten ere aurreko urtean abiatutako ekintzei jarraipena eman eta horiek gauzatzeko asmoa dute. Adibidez, koordinatzaileak jakinarazi du plastikorik gabeko astea, truke azoka eta bi hitzaldi antolatzen ari direla.

EKOLIDERRAK

“Gela bakoitzean ekoliderrak daude, hau da, gelako Agenda 2030eko ordezkariak dira”, azaldu du Zazpek. Jakintza Ikastolako proiektu honetako arduradun nahiz liderrek bilerak egiten dituzte, eta bertan adosten dituzten erabakiak gelako gelakideei azaltzen zaizkie. Bilera horietan, udala ere partaide izan ohi da.

BIDEGARRITASUNA “Arazoak konpontzen lagunduko duten ekintzak egin behar dira”.

“Arazoak konpontzen lagunduko duten ekintzak egin behar dira”.

Hainbat gauza hartu behar dira kontuan erabakiak hartzerako orduan. Alde batetik, ekintzak egingarriak izan behar dira, ekonomikoki zein denbora aldetik, eta, era berean, ikasleei erakargarriak iruditu behar zaizkie. Bestalde, helburuak beti hartzen dira kontuan; alegia, egiten diren jarduera guztiek egitasmoak finkatutako helburuekin lotura zuzena izan behar dute, arazoei irtenbidea ematen lagunduko duten ekintzak bultzatzea ezinbestekoa baita.

Hori guztia kontuan hartuta, Agenda 2030 funtsezkoa da gure etorkizunerako, haren bidez helburu ugari lantzen eta bultzatzen baitira. Gainera, gutako bakoitzak ere badu zer egina: egunerokoan keinu txikiekin lagundu dezakegu, hala nola birziklatuz edo ura alferrik ez xahutuz. Ondorioz, guztion artean mundu hobetoago bat eraiki dezakegula argi dago. Jar dezagun gure aletxoa!

Egileak: Maddi Lekuona, Iñaki Garcia, Ekhi Lukin eta Amets Izagirre.

TESTU LABURRA:

Agenda 2030ak munduko erronkei aurre egiteko 17 helburu ezarri zituen, eta Jakintza Ikastola, eguneroko ekintzen bidez, horiek lortu nahia lanean dihardu. Horretarako, ikasleek arazoak aztertu eta konponbideak martxan jartzen dituzte, plastikorik gabeko astea edota truke azokak bezalako ekimenekin. Gainera, elkarlana giltzarri da: ikasleak, irakasleak eta udala batera ari dira etorkizun jasangarriago baten alde. Mezua argia da: keinu txikiek aldaketa handiak sortzen dituzte. Eta zuek prest al zaudete zuen aletxoa jartzeko?
